

# SOZIALISMOA ETA SOZIALISTAK

Aspaldi esan zen, sozialismoa modan zegoela, eta oraindik ez da modatik pasa. Ez bait zen moda soil.

Sozialismoa ondo ikusita dago. Komunistek ere iadainik ez dute **komunismo** esaten, **sozialismo** esaten dute.

Han hemenka, sozialismoaren ideia zatika erne da gure artean, besterik ezin izan zitekeen bezalaxe. Estudio eta azter taldeetan, lagunarteetan, Alderdiaren batzuetan, zenbait langile sailetan, gartzeletan, herbestean. Baina jendeon artean ez zen posible komunikazio askorik. Jendeak esperentzia oso diferenteak egiten zituen han eta hemen. Influentzia eta eragipen diferenteak ezagutzen zituen. Irakurkai desberdinak eskuratzen zituen... Saitloxoka ibili behar izan da. Izkutuka ere bai, gehienetan. Ia bakoitza bere aldetik. Mota askotako sozialismoak ditugu.

Batzuek beren sozialismo parzial hortantxe gelditu nahiko dute. Beste askok, ordea, biziki sentitzen du bere ais-lazioaren eta zatitasunaren kontzientzia mindua. Eta sozialismo guziokin sozialismo bat egitea litzateke horien ametsa.

Sozialismo haundi, zabal bat eraikitzeko asmoa ez da aspaldikoa. Baina masa erakunde sozialista baten premia geroz eta gehiago sentitzen da. Asmo honek duen gauzarik okerrera bere presa eta larria da. Lehenbai lehen egin beharra dagoelakoxe, larri ibili beharko da. Baina, agian, eginkizunaren larriak jendea bizkortuko du. Egin beharra dagoena, egin egin behar da.

Hasi ere, hasi da jendea. Eta eginkizun hortan ahalik jende gehienak parte hartzea, opa dugu.

Masa Alderdi Sozialista baten asmoa ederki adierazten da ZABAL-en 9. zenbakian. Han beste gauza ederrik asko ere esaten da (gauzak hemen baino ederkiago esan bait litezke han). Garbiago ere esaten dira gauzak. Gutziagorik konformatuko gara. Hona hemen pasartetxo bat:

«Denetan ikusten den taldekatzeak, eztabaidek eta azpikeriak, erakusten digute, euskal oldea ez dela idealismo burges ttipitik ateraita».

«Irabazle haundiena da, denek gudukatu nahi dugun inperialismoa, eta galtzaileak dira, Euskal Herriko langileak. Eta hain zuzen, langileek daramaten euskaldun olde batek behar luke batasuneko bidea laster hatzeman».

«Ordu da eztabaiden ahazteko eta indarren elkartzeko, Euskadin erakunde sozialista baten eraikitzeko».

«Inperialismoaren aurkako gudu batean, behar dira indar herrikiokiak elkartu; esan nahi bait da, kapitalismoak eta kolonialismoak zapaltzen dituzten klase sozialak: langileak, artzainak, nekazariak, arraintzaleak, enplegatutak, artesauak, komerziante ttipiak, intelektualak, eta abar...».

Elkartzeko, lehen-lehenik elkartu nahia behar da. Baina ez da aski, nahi izatea. Behar da, baita, diferentzien sustraiak bilatu, diferentziok argitu eta onartu, elkartasuna oinarritu ere. Alderdi Sozialista horren barnean pentsamendu diferentziarik aski beharko da, gorri-gorritik larroxa-gorrraino. Politikan baturik, ez uste eta ideia orotan. Horrela jokatu behar.

Beraz, has gaitezen bakoitza bere eta besteen posizioak esaminatzen, errespetoan elkar hartzeko. Diferentzia guti dago, elkartu ahal ezin izateko hainakorik. Merezi du, diferentziatu nahi izatea baino, elkartu nahiago izatea. Irrintzi bat entzun da mendi tontorrean.

JOXE AZURMENDI

## Erria errialdea eta "provincia"

Fraga-k telebixtan esana: «provincia», errialdea edo errejioa baino lehen sortua dela.

Eta, gainera, adi-bide bat jarri nahi, eta Gipuzkoa jarri.

Bertsotan esateko: umekeria ez danez, gaiztakeria duk hori.

Gauza bat da erromatarrek bere menpean-edo zituzten lurraldeei latinez eman zien **Provincia** izena, Kristo aurretikoa, beraz; eta bestea: 1833-go azaroaren 30an **Decreto Real** baten bide makurrez Espaiña-k (eta France-n grina berekin) zatiketako puskei eman zien izena.

Espaiña-ren zatiketa honek zer hixtori-funtsa izan du?

Javier de Burgos-ek asmatu zuena: egun sentitik iluntzeraino karabinero batek egin zezakean zaldi-bidea behar zen kontuan artu kapitaletik zatiketa berriko urrutien geratzen zen erria «provincia»-n sartzeko.

Hau duk hixtoria!

Ba neurri arbitrario honekin egina izan zen Espaiñan «provincia» zatiketa.

Tokitan zegoen 1833 hontan Gipuzkoa-ko Probintzia!

Ipuzkoa, Lipuzkoa eta Gipuzkoa, aspaldi-aspaldiko erromatarren antzeko esan-nahiarekin emandako **lurralde-izena eta Titulua** zuen, beste batzuk Condado edo Principado edo Señorío zuten neurrikoa, garai hartan Espaiña-ko eguzki berotan Holanda-koak, eta Ameriketara Venezuela eta Trinidad, Probintziak izan ziran bezala; Ameriketara bertan, Nueva Granada, Santa Fe, México eta Perú Nafarroa-ren antzeko Virreinato izan ziren era berean.

Euskalerrria, izkuntzak eta toponimiak ondo erakusten duen bezala, erri bat izan da Prehistoriatik; X-garren gizaldian, «español» itza asmatua izan zen aurretik (ia XIII-garrenean sortu zen!) Nafarroa-ko erreinoan bilduta arkitzen ditugu euskal errialdeak; eta inongo eskualdeak izan badira gure erriko eskualdeak, Euskalerrrikoak eta Nafarroakoak izan dira.

Erria, erri; Probintzia bezalako eskualdea, eskualde; eta jauntxokeria nabarmenez, indarrez, egindako «provincia», berriz, orain ezagutzen dugun bidegabekeria hau.

MARTIN UGALDE

## “Desgobernua”

K. Santamaria Ansak

Espainiako gizarte politikoaren gaurko egoera adierazteko hitz egoki bat bada —nahiz eta erdaratitua izan— Axularren euskara garbiaz: «desgobernu» hitza, alegia.

Politikazko tramankulua ez dabilela bistan dago.

Mugigaitzasun hau ez da, ordea, harritzekoa. Ibil ere, nola demontre ibil liteke makina hori, ez ibiltzeko eratua izan delarik?

Jakina denez ongi loturiko makineria guzti hau asmatu zenean, aldakuntza eragozteko izan zen beraren xederik nagusiena.

Baldin ibilgailu bati fre-

nu super-ahaltsuak jartzen badizkiozue, eta, bapatean, motorean ahal adina txikituz, edo bera guztiz kendu, ondorea gelditasuna eta mugiezintasuna izango da, nahi eta nahiez.

Hori da, gure ustez, orain ikusten eta nozitzen ari garena.

Presaka ibiltzen denean holako tramankuluari jotea, txorakeria besterik ez dela dirudi.

Baina, desgobernu horretatik noiz-nola aterako gara?

Egunotan hori da askok geure buruei egiten diegun galdera.